

## NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAREN AZKEN BERRIAK

Atzo, otsailak 3, patronalek eta sindikatuek bilera bat egin genuen Donostian, hurrengo urteetan jaitsiera demografikoa aurreikusten den aurrean, ikasgelak ixteagatik lanpostua galtzen duten langileak birkokatzeke araudia prestatzeko. **Beste behin ere, Lanbide Heziketa arautzeko aurreko bileran bezala, KE eta AICE-IZEA patronalek ez zuten proposamen zehatzik eraman.** Ia hiru hilabete igaro dira greba-amaierako akordioa lortu zenetik, eta oso zaila egiten zaigu patronalek gai garrantzitsu honen erregelamenduaren garapenean lan egin ez izana ulertzea. Patronalei eskatu genien lehenbailehen egin dezatela, eta espero dugu otsailaren 17an, hurrengo bileraren data, behin-behineko araudi bat aurkeztea lanean hasteko, birkokatzeke sistema ahalik eta lasterren martxan jartzeko.

Bestalde, eta horietan guztietan **STEILAS**ek eskatuta, hiru gai jorratu ziren:

- Akta bat sinatu genuen, argitzeko Gizarte Ekimeneko Hitzarmena aplikatzen duten ikastetxe guztiek 2020ko taulen arabera ordaindu behar dituztela soldatak 2020ko urtarrilaren batetik aurrera.
- Patronalek **STEILAS**ek azken bileran eskatutako taulak aurkeztu zituzten, 2017, 2018 eta 2019ko atzerapenak kalkulaturik, eta horiek berrikusten ari gara.
- Patronalei interpelazioa egin genien Eusko Jaurlaritzari eska ziezaioten, deialdia atera aurretik, HLE-ek eta EITE-ek IRALEko liberazioen kupoan sartzeko duten eskubidea, greba-amaierako akordioan konpromisoa hartu zuten bezala.

## ÚLTIMAS NOTICIAS EN LA NEGOCIACIÓN COLECTIVA

Ayer, lunes 3 de febrero, tuvo lugar en Donostia una reunión entre Patronales y Sindicatos para elaborar el reglamento de recolocación del personal que pierda su puesto de trabajo por el cierre de aulas por el previsible descenso demográfico en los próximos años. **Una vez más, al igual que en la pasada reunión para regular la FP, las patronales KE y AICE-IZEA no llevaron ninguna propuesta concreta.** Han pasado casi tres meses desde el acuerdo de fin de huelga y nos resulta muy difícil comprender que las patronales no hayan trabajado en el desarrollo del reglamento de este importante asunto. Emplazamos a las patronales a que lo hagan cuanto antes y esperamos que el próximo 17 de febrero, fecha de la próxima reunión, presenten un reglamento provisional sobre el que empezar a trabajar para poner en marcha el sistema de recolocación cuanto antes.

Por otro lado, y a petición de **STEILAS**, se trataron tres temas:

- Firmamos un acta que aclara la obligatoriedad por parte de todos los Centros que aplican el Convenio de Centros educativos de Iniciativa Social de abonar a partir del 1 de enero de 2020 los salarios según las tablas acordadas para 2020.
- Las patronales presentaron las tablas que STEILAS solicitó en la última reunión con el cálculo de los atrasos de 2017, 2018 y 2019 y las estamos revisando.
- Interpelamos a las patronales para que solicitaran al G.V. antes de que saliera la convocatoria, el derecho de las EAE y las TEJIs de ser incluidas en el cupo de liberaciones de IRALE, tal y como se comprometieron en el Acuerdo de Fin de Huelga.

*Hezkuntzan STEILAS!*

[www.steilas.eus](http://www.steilas.eus)